



**HEZKUNTZA SAILEKO LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIAREN
2022KO MARTXOAREN 7KO EBAZPENA, EUSKAL AUTONOMIA
ERKIDEGOKO MAISU-MAISTREN KIDEGOKO LANGILE
FUNTZIONARIOEN 2021/2022KO LEKUALDATZE-LEHIAKETAN
ONARTUTAKO ETA KANPOAN UTZITAKO PARTE-HARTZAILEEN BEHIN
BETIKO ZERRENDA ETA MEREZIMENDUEN BAREMOAN LORTUTAKO
PUNTUAZIOA ARGITARA EMATEN DITUENA**

Hezkuntza sailburuaren 2021eko azaroaren 5eko aginduak, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioko unibertsitatekoak ez diren irakasleen kidegoetako langile funtzionarioen lekualdatze-lehiaketa deitzen duenak, hogeita laugarren oinarrian xedatutakoaren arabera (EHAA 2021eko azaroaren 12), Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2022eko otsailaren 1eko ebazpenaren bidez eman ziren onartutakoen eta kanpoan utzitakoen behin-behineko zerrenda, eta merezimenduen baremoan lortutako puntuazioak argitara.

Aipatutako 2021eko azaroaren 5eko aginduak, hogeita bostgarren oinarrian xedatutakoaren arabera, behin-behineko zerrenden kontrako erreklamazioak berrikusi dira eta, behar zirenak aintzat hartu ondoren, aldaketak egin dira. Halaber, barematzean atzemandako beste akats batzuk ere zuzendu dira. Akats horien ondorioz, parte-hartzaile batzuek puntuazio handiagoa edo txikiagoa izan dute baremoaren zenbait ataletan.

Horiek horrela, behar ziren aldaketak egin ondoren eta Hezkuntza sailburuaren 2021eko azaroaren 5eko aginduak hogeita bostgarren oinarrian xedatutakoaren arabera,

EBATZI DUT:

Lehena.- Argitara ematea Euskal Autonomia Erkidegoko Maisu-maistren kidegoko karrerako funtzionarioen arteko lekualdatze-lehiaketan onartutako parte-hartzaileen behin betiko zerrenda, Hezkuntza sailburuaren 2021eko azaroaren 5eko aginduak I. eranskinean ezarritako baremoaren arabera esleitutako puntuazioa adieraztearekin batera.

Bigarrena.- Argitara ematea aipatutako kidegoen arteko lekualdatze-lehiaketatik atzeratutako parte-hartzaileen behin betiko zerrenda, arrazoia adieraztereakin batera.



Hirugarrena.- Interesatuek gorako errekurtoa jarri ahal izango diote Hezkuntza Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari ebazpen honen kontra, hilabeteko epean, aditzera eman eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

BLANCA MARIA GUERRERO OCEJO
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA

Vitoria-Gasteizen, 2022ko martxoaren 7a